

## ZIRTAK

Julen Galbiza

IDAZLEA

# Gottland

**L**iburu-dendara sartu nintzenean, saltzailea Jonathan Franzen-en *Freedom* ari zitzaion gomendatzen balizko erosle bati, aipatutako liburuaren ale mordo batez eraikitako bi metroko zutabe korintiar baten ondoan. Eszena lizuna iruditu zitzaidan kasik, liburu hiperpromozionatua, saltzailearen adurretan entzutea.

Ez dakit erosleak zer egin zuen, baina nik, askatasunaren zutabe sendo haren ondotik pasatuta, nobedadeen mahaira abiatu eta begietara salto egin zidan lehenengo liburua hartu nuen: *Gottland*, Mariusz Szczygiel poloniarrena. Irakurriko dut noizbait Franzenena ere, baina, zinez, ez dakit zerk bultzatzen gaituen hain modu eraginkorrean Nobela Amerikar Handiaren bila aritzera etengabe, euren kontakizun handia gure kontakizun perfektua balitz bezala. Zergatik onartzen dugun Amerikako Mendebalde Ertaineko familia baten sagari buruzko kontakizuna hain dela unibertuala, ezen gure bizimoduak hornitzeko ere balioko duen. Amorruxka horrek eramango ninduen, ziurrenik, nobedadeen mahaitik izen ahoskaezineko idazle europar baten liburua hartzera, soilik Josef Koudelka argazkilari handiaren azaleko irudi ederrak erakarrita.

Astebete lehenago ETak pertsiara jaitsi zuen eta gure historiaren dioxosozko kontakizunari buruzko bonbardaketa betean bizi ginen, justu *Gottland* erosi, irakurtzen hasi, eta miretsita geratu nintzenean; izan ere, liburu aparta izateaz gain, horixe bera da: kontakizuna, Txekoslovakia zenari buruzkoa, nazismoaren eta komunismoaren ondorioak pairatu zituztenen bizitza txundigarrien bitartez kontakua. Berau irakurrita, garaian garaiko agintariak mota guztietako sortzaile, intelektual eta ekintzaileei jartzen zizkieten oztupoak baino harago, ikaragarriena da ikustea jendeak zelan aldatzen zuen espaloiz estigmatizatu-



INIGO AZKONA

tako pertsona horietako bat eurengana hurbiltzen zenean, eta, gaur egun ere, nola-ko erreparoak dauden lasai hitz egiteko. Ez dakit Txekia eta Eslovakiako historiaren idazketa ofizialerako balioko duen liburu honek, baina nik horrela irudikatzen dut edozein herrialderen historiari buruzko kontakizuna, alde batekoen zein bestekoena kontraesan, beldur, miseria, akats, ilusio, indar, ezinikusi, gaizkiulertu, isiltasun eta aldarri guztiak bilduz, ez soilik zuzeneko biktimen bizipenekin, ez soilik politikaren ikuspuntutik, baizik eta eguneroko bizitzaren gurpiletik.

Euskal Herriari buruzko kontakizun ofiziala ere idazten hasiak egongo dira honezkero, baina, zalantzarik gabe, guk ere geure *Gottland* partikularra behar dugu, gure Euskal Nobela Erraldoia (ENE!), non idatzita utzi beharko bailirateke, azken asteotan Interneten aurkitutako testu pare bat baino ez aipatzearen, Ander Izagirrek bere osaba zaharra zen Juan Alcortari buruz kontatu duena, edo Mikel

Iturriak, Ignasi Alvarezren testu bat erreskatatuz, Eduardo Chillidari buruz plazaratu dituenak. Edo Josu Martinezen dokumentalak, eta beste hainbeste testigantza. Entziklopedia oso bat, atarian pilatu zaigun zaborra, “ipuintxo krudelen bilduma”, Szczygielen liburuaren kontrazalak dioen moduan.


Eta bakoitzak konta dezala bere egiaren parte, denok onartzen dugun bitartean egia ez dela osorik geure jabetzakoa. “Zer da egia, esadazu” dio Lenka Procházková, Jan Procházka idazle jazarriaren alabak: “Guk bizi izan duguna da egia, eta ez norbaitek zenbait urteren ostean esango diguna”. Berandu baino lehen, beraz, norbaitek ekin beharko dio egia-pusketak

lurretik jasotzeari, zaborra biltzen duen kamioia beti ezustean etortzen da eta. ■

«

Bakoitzak konta dezala bere egiaren parte, denok onartzen dugun bitartean egia ez dela osorik geure jabetzakoa. ‘Zer da egia, esadazu’ dio Lenka Procházková, Jan Procházka idazle jazarriaren alabak

»



irudia:

Antton Olariaga

